

# EUSKADIKO ORKESTRA

## BASQUE NATIONAL ORCHESTRA

### FAGOT BAKARLARI 1 HAUTATZEKO LEHIAKETA (SISTEMA ALEMANIARRA)

2025eko maiatzaren 20an

#### **ONARRIAK:**

#### **1. LANPOSTUAREN DESKRIBAPENA.**

Bete beharreko postua FAGOT BAKARLARIArena da eta indarrean dagoen Hitzarmen Kolektiboan ezarritakoaren arabera arautuko da.

#### **2. BETEKIZUNAK.**

- 16 urte baino gehiago izatea.
- Goi Titulua edo horren parekidea edukitzea.
- Lana burutzea eragotziko dion gaixotasunik edo akats fisikorik ez edukitzea.
- Ezintasun-kausa legalik ez edukitzea.
- Antzeko zereginak gauzatzean falta larriagatik zigor diziplinariorik ez edukitzea.
- Espainiako nazionalitatea izatea, Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea izatea, edo paragrafo honetan sartzen ez diren atzeritarrak izatea, eta, hautatuak izanez gero, nahitaez lortu behar izatea Espainian lan egiteko eta bizitzeko nahitaezko baimena, kontratua hasteko aurreikusitako data baino lehen.
- Salbuespenez, Epaimahaiko Presidenteak (Sekzioko bakarlariaren, eta bere interes berezien arabera) Entzunaldi honetan eskatutako titulazioa ez duten hautagaizak hartu ahal izango ditu.

#### **3. HAUTAGAIEN ONARPENA.**

Hautapen-probetan parte hartu nahi duten pertsonen izena eman beharko dute <https://www.muvac.com/vacancy/euskadiko-orkestra-basque-national-orchestra-71dzm821> helbidean muvac bidez 2025/03/31a baino lehen.

Atxiki beharreko dokumentu eta artxiboak:

- EBko herritarrak: NANaren edo pasaportearen kopia.
- EB kanpoko herritarrak : Pasaportearen kopia.
- Goi Titulazioaren edo horren baliokidearen kopia.
- Bideoak, Igo Fasean hasten diren hautagaientzat.

Informazio eta kontakto orokorra: [pmaiz@euskadikoorkestra.eus](mailto:pmaiz@euskadikoorkestra.eus) Onartutako izangaien behin-behineko zerrenda [www.euskadikoorkestra.eus](http://www.euskadikoorkestra.eus) web-orrian argitaratuko da 2025/04/01.

Zerrendan agertzen ez diren izangaiek 2 eguneko epea edukiko dute zerrendatik kanpo geratzeko arrazoi izan diren akatsak edo dokumentuak zuzentzeko. Izangaien behin betiko zerrenda 2025/04/03an argitaratuko da.

#### **4. EPAIMAHAIA.**

Epaimahaia Zuzendari Musikala edo Euskadiko Orkestraren Aholkulari Artistikoarekin, Presidente gisa, eta bere Pertsonal Artistikoarekin osatuko da. Zuzendari teknikoa, idazkari gisa; hitzarekin baina botorik gabe eta Zuzendari Nagusiak, Errejidoreak eta Enpresa Batzordeko ordezkari batek parte ahal izango dute, hitzarekin baina botorik gabe.

#### **5. PROBAK EGITEA.**

- Lehiaketa prozedura guztia Orkestraren web orrian jarritako Lehiaketaren Araudiaren arabera egingo da.
- Igo Fasea bideo-audioa izango da, I Ariketako obrekin, hautagaiek muvac-en jarri dituzten bideoen arabera.
- Bideo guztiak 2025/03/31 baino lehenago hautagai bakoitzaren muvac perfilean egon beharko dira, hautagaiek bere muvac-eko perfilean baimena eman beharko duelarik bideo horiek Euskadiko Orkestrak ikus ahal ditzan.
- Bideoek gorputz osokoak izan behar dute, aurrez-aurre, kamara gutxi gora behera 2,5 metrotara, hondoko horma lau argiarekin, ondoan argirik edo leihorik gabe, eta ahalik eta audio eta bideo kalitate handienarekin.
- Hautagaiek bideo bakarra bidali beharko dute, hartualdi bakarrean egingo eta inolako ediziorik gabe. Bideo horren edizioak zuzenean kanporatuko ditu hautagaiek Euskadiko Orkestrarako instrumentu-jotzaileak hautatzeko lehiaketa honetatik eta gerokotatik. Obrak 1. ekitaldian deskribatutako ordenan grabatu beharko dira.
- Aldez aurretik kontratu finkoa edo aldi baterako kontratua indarrean dutela egiaztatzen duten parte-hartzaileak (gutxienez 6 hilabete etengabe ) Orkestra edo Ensemble Profesionaleko posizio berean, 2025/03/19 baino lehen zuzenean 2025/05/20ko Entzunaldi Presentzialera pasatzea eskatu ahal izango dute, edozein obra interpretatzeko prest egoteko betebeharrarekin, baita bideo-entzunaldikoak ere. Eskaera hori onartu den ala ez lehenbailehen jakinaraziko zaio hautagai-zerrendako interesdunari (limitea 2025.03.24), epaimahaiburuari edo hark eskuordetutako pertsonari kontsulta egin ondoren. Epaimahaiburuak lanpostuaren eta lanpostu osoaren garrantziaren arabera erantzungo du.
- 2025/05/20ko entzunaldi presentzialean onartutako hautagaien zerrenda 2025/04/11a baino lehen argitaratuko da.
- 2025/05/20an, 15:30etan, Lehiaketak aurrez aurre jarraituko du.
- Hautagai guztiak 2025/05/20an erregistratu beharko dira, NANarekin edo pasaportearekin, 14:15etik 14:45 bitartean
- Orkestra-errepertorioa exerita eta kontzertua zutik joko dira epaimahaia zehaztutako eremuan.
- Hautapen-probak hainbat fasetan burutuko dira eta Epaimahaia erabakiko ditu faseak Ariketa desberdinetako obrak nahastu ahal izango direlarik (baita Ariketa I ekoak, bideo entzunaldikoak). Faseak kanporatzaileak izango dira normalean; ariketa presentzialetako lehen Fasea, gutxienez, gortina atzean egingo da.
- Epaimahaia, egokitzen duenean, zati zehatz bat interpretatzeko eskatu ahal izango du, edo nahi duenean amaitutzat jo ahal izango du izangai bakoitzaren proba.
- Entzunaldi honetako lehen hiru postuetan dauden lehiakideek poltsa bat jasotzeko eskubidea izango dute, bidaia eta ostatu-gastuetarako, betiere egindako gastua ordainagiriekin egiaztatzen bada, gehienez 350,00 €.

# EUSKADIKO ORKESTRA

BASQUE NATIONAL  
ORCHESTRA

## **6. KONTRATAZIOA.**

- Hautatutako izangaiek Orkestraren Administrazioarekin harremanetan jarri behar dute Orkestrak adierazitako daten barruan kontratazioa izapidetzeko beharrezkoa den dokumentazioa bidaltzeko.
- Kontratua mugagabea izango dira eta 6 hilabeteko frogaldia edukiko du. Urteko soldata gordina 54.200 EURO ingurukoa da. Lehen bait lehen lanean hasteko.

# EUSKADIKO ORKESTRA

BASQUE NATIONAL  
ORCHESTRA

## FAGOT BAKARLARI 1 HAUTATZEKO LEHIAKETA (SISTEMA ALEMANIARRA)

Aurrez aurreko lehiaketa **2025eko maiatzaren 20an, 15:30etan** izango da **EUSKADIKO ORKESTRA**ren egoitzan,  
Miramongo Pasealekua, 124 zk., Donostia.

### A R I K E T A K

#### I.- ARIKETA: (Bideo entzunaldia. Errepertorio hau aurrez-aurreko entzunaldian ere eskatu ahal izango da)

- W.A. MOZART: Kontrazertua Sib maiorrean I mug. 97 konpasaraino, hori barne. (Pianoaren laguntzarik gabe. Fagota bakarrik).

Orkestra-errepertorioa:

- H. BERLIOZ: Symphonie fantastique. III., IV. eta V. Mugimenduak (1)
- STRAWINSKY: Suzko txoria (Ballet suite 1945) Berceuse (1)
- M. RAVEL: Rapsodia Española. I. mug. Prélude à la nuit. Kadentzia. (1)

#### II.- ARIKETA: (aurrez aurre)

- W.A. MOZART: Kontzertua Si b maiorrean I eta II mugimendua kadentziekin.

Orkestra-errepertorioa:

- M. RAVEL: Miroirs, M.43. Zk. 4, Alborada del gracioso, arr. for orchestra (Ravel): [9]tik [21]raino (2)
- W. A. MOZART: Le nozze di Figaro. Obertura. (1)
- P.I. TCHAIKOVSKY: 5. sinfonia. I, II eta III mug. (1)
- I. STRAWINSKY: Udaberriaren sagaratzea. Introduzione (1)

#### III.- ARIKETA: (aurrez aurre)

Orkestra-errepertorioa:

- L. Van BEETHOVEN: 4. sinfonia. I, II eta IV mug. (1)
- M. RAVEL: Boleroa. (1)
- M. RAVEL: Piano kontzertua Sol Maiorrean. I eta III mug. (1)
- W.A. MOZART: 41. Jupiter sinfonia. I, II eta IV mug. (1)
- R. KORSAKOV: Sheherezade. II mug. (1)
- S. PROKOFIEV: Peter and the wolf. 173 konpasatik 188raino (biak barne), 203 tik 215eraino (biak barne) eta 557 tik 561era (biak barne) (3)

#### IV.- ARIKETA:(aurrez aurre)

Orkestra-errepertorioa:

- B. BARTOK: Orkestrarako kontzertua: (3)
  - II mug.: konpas 8tik 24era (biak barne) eta 164etik 180era (biak barne)
  - IV mug.: konpas 12tik 20era (biak barne)
- D. SHOSTAKOVICH: 9. Sinfonia , IV. eta V. Mug. (1)
- G. MAHLER: 1. sinfonia, Titan. Bersio berikusia. III mug.: hasieratik [1], [5] raino (2)
- I. STRAWINSKY: Pulcinella-Suite, III, V eta VI mug. (1)
- P.I. TCHAIKOVSKY: 6. sinfonia. Patetikoa. I eta IV mug. (1)
- R. WAGNER: Lohengrin. 2. Ekitaldia, 3. eszena (1)
- L. van BEETHOVEN: Biolinerako kontzertua Re maiorrean. I, II eta III mug. (1)

#### V.- LEHEN BEGIRATUZKO IRAKURKETA: (aurrez aurre)

Orkestra-errepertorioa hemen eskuragarri:

(1) *Orchester-Probespiel: Fagott / Kontrafagott / herausgegeben von Karl Kolbinger und Alfred Rinderspacher. - Schott, EP 8662.- ISMN 9790014069902*

(2) <http://imslp.org/>

(3) *Zati horiek egile-eskubideek babesten dituzte. Argitaletxeek baimena eman ondoren, hautagai bakoitzari pdf babestu bat emango zaio, deskarga esteka baten bidez. Baimen hori proba honetarako baino ez da; beraz, izangaiak konpromisoa hartzen du, proba egin ondoren, probaren edozein kopia suntsitzeko, eta haren erantzukizuna izango da beste edozein erabilera egitea*

\* Oinarri hauek hainbat hizkuntzatan interpretatzeko, gaztelaniazko bertsioa izango da erreferentzia argigarria